


EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN DIZIPLINAZKO ARAUTEGIA



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

I. IZENBURUA

DIZIPLINAZKO AHALARENA ETA ZIGOR NAHIZ ARAU-HAUSTEENA

I. Kapituluua: Xedapen Orokorrak

1. Artikulua: Euskadiko Rugby Federakuntzaren diziplinazko ahalaren jarduera bertan federatutako pertsona fisiko eta juridiko guztiengana eta Federazioaren egitura organikoa eratzen duten pertsona guztiengana hedatzen da, baita Federazioaren kide diren ala bere egitura organikoa eratzen duten pertsona juridiko ala erakundeen ordezkari bezala jarduten dutenengana ere.

2. Artikulua: Diziplinazko ahalaren eremua joko-arau eta lehiaketaren arau-hausteetara, eta kirol arau orokorren arau-hausteetara hedatzen da, zein indarrean dagoen Euskal Herriko Kirolaren Legean, diziplinazko ahala arautzen duten arautegi publikoetako xedapenetan, eta Euskadiko Rugby Federakuntzaren Estatutuetan nahiz Arautegi honetan aurreikusitakoetan modu horretan tipifikatzen baitira.

3. Artikulua: Diziplinazko ahala Euskadiko Rugby Federakuntzari bere diziplinaren mendeand dauden pertsonak ikertu eta, bere kasuan, zigortzeko onartzen zaion ahalmena da.

Diziplinazko ahalak Jokoaren Arau Teknikoak aplikatzerakoan arbitro eta epaile jaun/andreei esleitzen zaizkien proba eta lehiaketak zuzentzeko ahalmena ez du izango.

II. Kapituluua: Arau-hausteak eta Zigorrak


4. Artikulua: Arau-hausteak bi motatakoak izan ahal dira:

a) Joko ala lehiaketa arauen arau-haustea ala urratzea.

b) Kirol arau orokorren arau-haustea ala urratzea.

5. Artikulua: 1.- Zigorrek izaera hezitzaile, prebentibo eta zentzagarria dute eta bere ezarpenak beti interes orokor eta kirolzalea defendatzea izango du helburutzat. Zigorrak aplikatzerakoan, bereziki, arau-hauslearen asmoa eta jardueraren ala ez egitearen ondorioa hartuko dira kontuan.

2.- Dagokion diziplinazko espedientearen bidez ezarritako zigor guztiak, joko-arauen nahiz kirol arau orokorren arau-haustearen ondorioz, berehala gauzatuko dira, dagozkien errekursoak ezagutu beharko dituzten federazio, administrazio ala eskumeneko organoek eskuragarri dituzten kautelazko etenaldiaren ahalmenei utzi gabe.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

3.- Isun ekonomikoaren zigorra bere jarduerarengatik ordainsariak ala konpentsazioak eskuratzen dituzten kirolari, teknikari jaun/andre eta epaile jaun/andreei hala nola pertsona juridikoei ezarri ahal izango zaie.

6. Artikulua: Joko ala lehiaketaren arauen arau-haustek Euskadiko Rugby Federakuntzak antolatutako joko ala lehiaketaren garapen normala urratzen, eragozten ala kaltetzen duten jarduerak ala ez egiteak izango dira.

Joko eta lehiaketaren arauen arau-haustek, hala nola bere zigorrak, Euskal Rugby Federakuntzaren Partidu eta Lehiaketetako Arautegian jasotakoak izango dira.

Hala ere, arau-hauste horiek epaitzeko aplikatu ahal den prozedura Arautegi honetan aurreikusitakoa izango da.

7. Artikulua: Kirol arau orokorren arau-haustek dira aurreko artikuluan azaltzen ez diren jarduerak ala ez egiteak eta Partidu eta Lehiaketetako Arautegian aurreikusitako tipifikatzea, zein indarrean dagoen Euskal Herriko Kirolaren Legean, hau garatzen duten arautegiko xedapen publikoan ala Euskadiko Rugby Federazioaren Estatutuetan ala Arautegietan ezarritakoarekiko aurka baitaude.

8. Artikulua: Arau-haustek oso larriak, larriak ala arinak izan ahal dira.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Edozein kasutan, arau-hauste oso larriak kontsideratuko dira ondorengoak:

a) Dagozkion emate oinarri ala hitzarmenetan ezarritakoekiko helburu ezberdinetarako eginiko laguntza eta diru-laguntzen erabilera.

b) Datu errealak eta laguntzak nahiz diru-laguntzak emateko eskatzen diren dokumentuen nahasmendu nabarmena.

c) Esleipen eta eskumenen legez kanpoko usurpazioa.

d) Diziplinazko ala hauteskunde organoetako kideen aldetik estatutuko nahiz arautegiko betebeharrak modu oso larrian ez betetzea.


e) Kirol instalaziotako segurtasun eta higienearekin lotutako federazio arauak ez betetzea hauetara bertaratzen diren pertsonentzat arrisku oso larria suposatzen dutenean.

f) Jarduera burutzeak hirugarrenentzat arrisku oso larriak dakartzanean segurtasun arauak eta arriskuen estalduraren arauak betetzen ez dituzten kirol jarduerak antolatzea.

g) Euskadiko Rugby Federakuntzaren estatuetako eta arautegietako arauak modu agerian behin eta berriro ez betetzea.

h) Epaile, kirolari, teknikari, kirol agintari eta proba ala lehiaketetan, ofizialak izan ala ez, parte hartzen dutenak eragiten dituzten eraso, beldurrarazte ala indarkeriak.

i) Agintearen gehiegikeriak.




EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

- j) Proba ala lehiaketa baten ospakizuna eragotziko duen ala bere aldi baterako nahiz behin betiko etenaldia eragingo duen protesta ala jarduera kolektiboa.
- k) Indarkeria eragingo duten adierazpen publikoak eta kirolari, teknikari, epaile nahiz zuzendarien gainerako jarduerak.
- l) Kirol jardueraren garapenerako esleitutako fondo publikoekin jakinaren gainean eginiko erabilera desegokia.
- m) Debekatutako substantzien sustapen, bultzatze eta kontsumoa ala debekatutako metodoak erabiltzea; baita dagokion kontrola eragotzen duen edonolako jarduera ala ez egite ere.
- n) Jokoaren nahiz lehiaketaren emaitza aurretiaz ezartzeko joera duten jarduerak ala ez egiteak.
- ñ) Arau-hauste larri ala oso larriarengatik ezarritako zigorrak urratzea.
- o) Arau-hauste larriak berriro egitea.
- p) Kirol Justiziarekin lotutako Euskal Batzordearen Ebazpenak ez betetzea.
- q) Kirol modalitatearen garapen eta praktikarako eraso larria suposatuko lukeen beste edonolako jarrera.
- r) Arau teknikoaren aurka kirol materialarekin eginiko manipulazio ala nahasmendua, pertsonalki ala tartekatutako beste norbaiten bidez egina, hauek proba ala lehiaketaren segurtasuna nahasten dutenean edo bestela pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen dutenean.

2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan ondorengoak arau-hauste larriak kontsideratuko dira:

- a) Hutsegite arinarenegatik ezarritako zigorrak urratzea.
- b) Diziplinazko ala hauteskunde organoetako kideen jarduerarik eza ala funtzioen ez betetzea zeinek bere betebeharren ez betetze oso larria ez baitute suposatuko.
- c) Euskadiko Rugby Federakuntzaren selekzioen deialdietara justifikaziorik gabe eginiko ez agertzea.
- d) Bere etenaldia eragin gabe, proba ala lehiaketaren garapen normala nahasten duen protesta.
- e) Epaile, teknikari, entrenatzaile, kirol agintari, jokalaria ala bertaratutako jendea eginiko irain eta laidoak.
- f) Behar den titulazio ala baimenik gabe epaileek eta teknikariek berezkoak dituzten jarduerak burutzea.
- g) Arau-hauste arinak berriro egitea.
- h) Dagokion baimenik gabe ofizialen izendapena duten jarduerak, probak ala lehiaketak antolatzea.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

- i) Betetzen den funtzio ala jarduerarekiko bateraezinak bezala adierazitako jarduera publiko ala pribatuak burutzea.
- j) Kirol lehiaketaren garapenak eskatzen duen duintasun eta ohorearen aurka modu agerian ala jendaurrean eginiko jarduera.
- k) Kirol instalaziotako segurtasun eta higieinarekin lotutako federazio arauak ez betetzea, hauetara bertarutzen diren pertsonentzat arrisku larria suposatzen dutenean.
- l) Euskadiko Rugby Federakuntzaren estatutueta ala arautegietako arau nahiz hitzarmenen ez betetze soila.
- m) Segurtasun eta arriskuen estaldurarekin lotutako arauak betetzen ez dituzten kirol jarduerak antolatzea, jarduera burutzeak hirugarrenentzat arriskurik ez dakarrenean.
- n) Autonomia Erkidegoan finkatutako erakundeen artean hamasei urtetik beherakoentzat atxikipen, prestakuntza, konpentsazio ala analogoen eskubideak eskatzeko debekua ez betetzerakoan parte hartzea.
- ñ) Lizentzietan eta/edo hau bideratzeko beharrezkoa den beste edonolako dokumentutan islatutako datuen egiazkotasun eza ala engainuzko nahasmendua.
- o) Eskumeneko pertsona eta organoetatik eratorritako aginduak eta hitzarmenak ez betetzea.

3.- Arau-hauste arinak:

Edozein kasutan, arau-hauste arinak kontsideratuko dira ondorengoak:


- a) Epaille, teknikari, kirol agintari, jokalaria ala bertaraturako jendeari oharrak modu desegokian adieraztea.
- b) Epaille eta gainerako kirol agintarien aldetik jasotako aginduak betetzerakoan jarrera pasiboa izatea.
- c) Ez betetze arina suposatzen duten diziplinazko ala hauteskunde organoetako kideen jarduerarik eza ala funtzioen utziera.
- d) Federazio organizazioan dauden pertsonengana ala erakundeetara zuzendutako adierazpen publiko desegoki ala erasokorrak.
- e) Modu agerian kirol arauen aurka dauden jarrera haiek zeinek oso larri ala larrien kalifikazioa ez baitute izango.

9. Artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluetan adierazitako arau-hausteengatik aplikatu ahal izango diren zigorrek ondorengoak izango dira:

1.- Arau-hauste oso larrien kasuan:

- a) Lizentzia urte bete baino epe luzeagoan eta gehienez bost urtekoan etetea.
- b) Lizentzia kentzea.
- c) 6.000 € eta 60.000 € bitarteko isuna.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org


- d) Urte bete baino epe luzeagoan eta gehienez bost urtekoan karguak eta funtzioak betetzeko gaitasungabetzea.
- e) Urte bete baino epe luzeagoan eta gehienez bostekoan probak ospatzen diren bitartean kirol instalaziotara sarbidea izateko debekua.
- f) Hiru partidu eta gehienez denboraldi bateraino bitartean kirol esparrua ixtea.
- g) Kategoriaz jaistea.
- h) Joko, proba ala lehiaketatik betirako kanporatzea.
- i) Joko, proba ala lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- j) Jokoak, probak ala lehiaketak atea itxita ospatzea.
- k) Jardunaldi ala proba bat baino gehiagoren baliokideak liratekeen puntuak, partiduak ala sailkapeneko postuak galtzea.

2.- Arau-hauste larrien kasuan:

- a) Hilabete baino gehiagoko epean eta gehienez urte betekoan lizentzia etetea.
- b) 600 € eta 6.000 € bitarteko isuna.
- c) Urte beterainoko epean karguak eta funtzioak betetzeko gaitasungabetzea.
- d) Urte beterainoko epean probak eta lehiaketak ospatzen diren bitartean kirol instalaziotarako sarbidea debekatzea.
- e) Kirol esparrua bi partidutarako ixtea.
- f) Joko, proba ala lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- g) Joko, proba ala lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- h) Joko, proba ala lehiaketak atea itxita ospatzea.
- i) Jardunaldi ala proba bat baino gehiagoren baliokideak liratekeen puntuak, partiduak ala sailkapeneko postuak galtzea.
- j) Ohartarazpen pribatua.
- k) Ohartarazpen publikoa.

3.- Arau-hauste arinen kasuan:

- a) Hilabeterainoko epean lizentzia etetea.
- b) 600 €-rainoko isuna.
- c) Joko, proba ala lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- d) Joko, proba ala lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- e) Ohartarazpen pribatua.
- f) Ohartarazpen publikoa.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

III. Kapituluak: Erantzukizunaren iraungipena

10. Artikulua: Erantzukizunaren iraungipenerako arrazoiak.

1.- Kirol diziplinazko erantzukizuna edozein kasutan iraungitzen da:

- a) Zigorra betetzeagatik.
- b) Arau-haustearen aginduarengatik.
- c) Zigorren aginduarengatik.
- d) Erruztatu ala zigortuaren heriotzarengatik.
- e) Erruztatu ala zigortutako kirol erakundearen iraungipenarengatik.
- f) Zigorra barkatzeagatik.

2.- Federatuaren egoera galtzeak, horrek hainbat kasutan ezarritako zigoren eraginkortasuna eragin ahal badu ere, ez du diziplinazko erantzukizunaren iraungipena suposatuko.


11. Artikulua: Arau-hauste eta zigoren preskripzioa.

1.- Arau-hausteak hiru urte barru, urtebete barru ala hilabete barru preskribatuko dira, arau-hauste oso larri, larri ala arinak izaten direnaren arabera, eta preskripzioaren epea arau-haustea burutu den egunetik aurrera kontatuko da. Etengabeko jardura batetik eratorritako arau-hausteetan, zenbaketaren hasiera-data jardueraren amaierarena ala arau-haustearen amaierako azkeneko jarduerarena izango da.

2.-. Preskripzio-epea prozedura zigortzailearen hasiera jakinarazten den unean etengo da. Prozedurak hilabete baino gehiagoren zehar geratuta irauten badu, prozedura horrekin lotutako pertsona ala erakunde arduradunari egotzi ezin ahal zaion arrazoiarengatik, dagokion epea berriro martxan jarriko da.

3.- Arau-hausteak hiru urte barru, urtebete barru ala hilabete barru preskribatuko dira, arau-hauste oso larri, larri ala arinak izaten direnaren arabera eta preskripzio-epea ebazpena, zeinengatik zigorra ezarri baitzen, irmoa izatera iristen den hurrengo egunetik aurrera ala hau hasita balego bere betetzea urratzen den unetik aurrera hasiko da kontatzen.

4.-Edozein kasutan, zigorra partidu kopuru baten etenaldiarekin gauzatuko zatekeenean, preskripzioaren xedeetarako zigorra bete beharko litzatekeen denboraldi bateko lehiaketa ofizialaren amaiera eta hurrengoaren hasiera bitarteko denbora-epeak ez lirateke zenbatuko.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

12. Artikulua: Zigortuei bere birgaitzea eskatzeko aukera onartzen zaie, ondoriozko aurrekarien ezeztapenarekin, zigorra betetzen denetik aurrera kontatutako hurrengo epeen arabera:

- a) Sei hilabete barru, zigorra falta arinarengatik izango balitz.
- b) Bi urte barru, falta larriarengatik izango balitz.
- c) Lau urte barru, falta oso larriarengatik izango balitz.

Birgaitzea zigorra ezarri zuen organo berdinarean aurrean eskatuko da, eta prozedura baliabide berdinekin burututako epaitze eta hutsegitearen zigorrerako jarraitutakoa izango da.

IV. Kapituluua: Erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziena.

13. Artikulua: Joko- eta lehiaketa-arauen aurkako arau-hausteei aplikatu ahal diren erantzukizunetik libre uzten duten arrazoiak dira:

- a) Ustekabea.
- b) Ezinbestean eginikoa.

14. Artikulua: Erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak.

1.- Diziplinazko erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak aringarriak ala larrigarriak izan ahal dira.


2.- Kirol arau orokorren aurka aplikatu ahal diren zirkunstantzia aringarriak dira ondorengoak:

- a) Arau-haustearen betekizunaren aurretik behar adinako probokazio bat egon izana.
- b) Bat-bateko damutzearena.
- c) Eragindako kaltea konpontzea, betiere garaiz egina eta bat-batekoa izaten bada.

3.- Kirol arau orokorren aurka aplikatu ahal diren zirkunstantzia larrigarriak dira ondorengoak:

- a) Errepikatzea ala berriro egitea.
- b) Prezioa.

4.- Diziplinazko ahala gauzaterakoan diziplinazko organoek egokitzen jotzen duten mailako zigorra ezarri ahal izango dute, ekintzen izaera, pertsona arduradunaren nortasun, arau-haustearen ondorio eta zirkunstantzia larrigarri ala aringarrien aldebereotasuna kontuan hartuta.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

V. Kapituluua: Kirol Diziplinazko Antolaketarena

15. Artikulua: Diziplinazko Batzordeari dagokio Euskadiko Rugby Federakuntzaren diziplinazko ahalaren jarduera burutzea.

16. Artikulua: Diziplinazko Batzordea gainerako federazio organoei dagokionez kirol diziplinazko ahala izaera independentearekin betetzen duen Euskadiko Rugby Federakuntzaren organoa da.

Diziplinazko Batzordea Zuzendaritza Batzordeak izendatutako kideen kopuru bakoitiaz eratuta egongo da. Pertsona bakarreko organoa izan ahal izango da. Bai Batzordeko Lehendakaria eta bai bere kideak Euskadiko Rugby Federakuntzaren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu.

Diziplinazko Batzordearen kideak lau urteko epe baterako izendatuko dira. Edozein kasutan epe jarraietarako izendatu ahal dira. Zuzendaritza Batzordeak Diziplinazko Batzordearen kideak kargutik kendu ahal izango ditu, justifikatutako arrazoiarengatik eta motibatutako ebazpenaren bidez.

Diziplinazko Batzordearen kideek arlo honi dagozkion ezagutza zehatzak ala funtzio hauek betetzeari dagokionez frogatutako eskarmentua izan beharko dute.


17. Artikulua: Diziplinazko Batzordea bere kideen gehiengo saiora bertaratzen denean behar bezala eratuta geratuko da eta bere eskumeneko arloekin lotutako erabakiak modu onargarrian hartu ahal izango dira.

Hitzarmen horiek gehiengoaren arabera burutuko dira eta berdinketaren kasuan Lehendakariak kalitatezko botoarekin kontatuko du.

Presazko kasuan, kideek hitzarmenak bere idatzizko jasota uztea zilegi egingo duten komunikazio-sistemen bidez burutu ahal izango dituzte.

18. Artikulua: Batzordeak bere Lehendakariak izendatuko duen Idazkari batekin kontatuko du zein, Zuzendaritza Batzordearen proposamenaren arabera, Federazioaren Idazkaria izan ahal izango baita. Kasu honetan saiotara iritziarekin baina botorik gabe bertaratuko da.

Bere funtzioak bileretako akta altxatzea eta hartutako hitzarmenak lekualdatzea izango dira.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

II. TITULUA **DIZIPLINAZKO PROZEDURENA**

I. Kapituluak: Irizpide Orokorrak

19. Artikulua: Diziplinazko prozedurak.

1.- Diziplinazko erantzukizunen garbiketa ohiko prozedura nahiz ez ohiko prozeduraren bidez burutuko da.

2.- Ez ohiko prozedura, lehentasunezko eta sumarioko irizpideen arabera, bereziki joko- ala lehiaketa-arauetako arau-hausteetan aplikatu ahal izango da.

20. Artikulua: Diziplinazko eta zigor erantzukizunen aldiberekotasuna.


1.- Diziplinako Epaileak, ofizioz ala interesatutako alderdiak eskatuta, Ministerio Fiskalari delitua ala zigor penala izan litezkeen ekintza haiek jakinaraziko dizkio. Kasu honetan, Epaileak prozeduraren etetea adostuko du dagokion ebazpen judiziala ezartzen zaion arte.

2.- Aurrekoa hala izanik, Diziplinazko Batzordeak beharrezko kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu.

21. Artikulua: 1.- Ekintza berak Kirolaren Legean araututako administrazio-erantzukizun eta bere garapenerako jendaurreko Arautegi nahiz Arautegi honetan aurreikusitako diziplinazko erantzukizunetarako bidea eman ahal izango balu, Diziplinazko Batzordeak, ofizioz ala parteak eskatuta, eskumeneko administrazio organoari jakinaraziko lioke, hori guztia diziplinazko prozedura bideratzeari utzi gabe.

2.- Diziplinazko Batzordeak administrazio erantzukizunerako bidea eman ahal izango luketen ekintzak ezagutzen dituenean, eskumeneko organoetan aurrekariak jakinaraziko ditu.

22. Artikulua: 1.- Diziplinazko Batzordeak era berean, espedienteari hasiera ematen zaionean, akatsa babesteko ala kalte konponezin bat ekiditeko beharrezkoak liratekeen kautelazko neurri hartzea hitzartzeko ahalmena izango du.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

Neurri hauek espedientea bideratzen den bitartean eta bere ebazpeneraino iraungo dute, eta dagokion errekurtsioa burutu ahal izateko interesdunei jakinarazi beharko zaizkie.

2.- Ezin izango da legeek babestutako eskubideak urratzea inplikatzeko duen kautelazko neurriak hartu ala aplikatu.

23. Artikulua: 1.- Interesdunek bere nahiei dagokionez atzera egin ahal izango dute prozeduraren edozein fasetan, baina atzera egiteak adieraziko lukeenari dagokionez soilik izango luke eragina.

2.- Atzera egitea Diziplinazko Batzordearen aurrean adierazi beharko da, idatziz nahiz ahoz agerraldiaren bidez; azkeneko kasu honetan dagokion izapidea zabaldu eta izenpetu beharko litzateke.

3.- Atzera egiteak diziplinazko espedientearen amaiera eta artxibatzea ekarriko du, eskaera hori adierazi ez duten beste interesdun batzuek egongo liratekeenean ala Diziplinazko Batzordeak interes orokorreko arrazoiei jarraiki prozeduraren jarraipena hitzartuko lukeenean izan ezik

II. Kapitulua: Ohiko Prozedurarena

24. Artikulua: 1.- Kirol diziplinazko prozedura, kapitulu honetan arautua, Diziplinazko Batzordeak hasiko du, erabakiaren bidez, Instruktoarea izendatuz. Izendapen hori Batzordeko Lehendakariak burutuko du.

2.- Erabakiak, gutxienez, ondorengo datuak izango ditu barne:

a) Espediente-irekitzea eragin duten ekintzez gainera hauek gertatutako datari dagokion erreferentzia laburra.


b) Espediente-irekitzearen data.

c) Interesdunak ala eraginak.

d) Bere kasuan, hartutako kautelazko neurriak.

e) Bere kasuan, Batzordeak adierazitako proba-baliabideak ala honek nahiz hirugarrenek eskatutako espedientearekin batera doazen dokumentuak.

3.- Erabaki hori Batzordeko Idazkariak ala honek eskuordetzen duen pertsonak interesdunei jakinarazi beharko diete.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

25. Artikulua:

1.- Instruktoeari eta Idazkariari administrazio prozedura orokorrerako indarrean dagoen legerian aurreikusitako abstentzio eta ezespenerako arrazoiak aplikatu ahal zaizkie.

2.- Ezespenerako eskubidea Diziplinazko Batzordearen aurrean espediente-irekitzearen erabakiaren berri izaten den hurrengo egunetik hasita kontatu beharreko hiru egunen epean burutu ahal izango da.

3.- Diziplinazko Batzordeak Zuzenbideari dagokiona hitzartuko du bost egunen epean, eta ematen den ebazpenaren aurka dagozkion errekurtsoak jartzerakoan erreklamazioa errepikatu ahal izango da.

26. Artikulua: Diziplinazko Batzordeak, salaketa jasotzen duenean ala balizko arau-hauste baten berri izaten duenean, espedientearen hasierari dagokion erabakia ala bere kasuan, espedientea artxibatzearen erabakia eman aurretik, gordetako informazioaren instrukzioa hitzartu ahal izango du.

27. Artikulua:

1.- Espedientea irekitakoan, eta espediente-irekitzearen erabakia jakinarazitakoan, eta bere kasuan beharrezkoak liratekeen kautelazko neurriak hartzeari utzi gabe, Epailleak, jakinarazpenaren ondorengo hamar egunen barnean, fase frogagarria irekiko du, hogeitun egun baino gehiago eta bost baino gutxiago hartuko lituzkeen epearen arabera, zeinetan zehar ekintzak argitzeko eta hauetatik eratorritako erantzukizunak zehazteko behar adina proba-izapide burutuko baitira.


Instruktoearien ardura izango da praktikatu beharreko proba-izapideak zehaztea, bai berak eskatzeagatik ala bai aurreko paragrafoan adierazitako epearen barnean interesatuek idatziz aurkeztutako eskaera nahiz proposamenarengatik; interesdunei agindutako ala onartutako probak zein toki, egun eta ordutan ospatuko diren jakinarazi beharko zaie.

2.- Espedientea bideratu eta ebazteko ekintza garrantzitsuak zuzenbidearekin lotutako edonolako proba onargarriren bidez frogatu ahal izango dira.

3.- Proba-praktikaren onartze ala ukatzeari buruzko Instruktoearien hitzarmenen aurka ez da inolako errekurtsorik onartuko, interesdunaren aldetik bai ebazpenaren aurretiazko entzute-izapidean eta bai ebazpen horren aurka burutzen eta adierazten diren errekurtsotan gauzatu ahal den bere eskaeraren errepikapenari utzi gabe.

28. Artikulua:

1.- Burututako jarduerak ikusitakoan, Instruktoeak, proba-epea amaitzen denetik ondorengo hamar egunen barnean, kargu-orria adieraziko du, zeinetan egotzitako ekintzak, bere kasuan praktikatuko liratekeen proben emaitza, eta espedientearen ebazpen proposamena adieraziko baitira. Hori guztia interesatuei jakinaraziko zaie,



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

jakinarazpenaren egunetik hasita hamar egunen epean bere eskubide eta interesak babesteko komenigarritzat jotzen dutena adierazteko.

2.- Kargu-orri eta ebazpen proposamenari erantzunez, ala interesatuen aldetik izapidea bideratu gabe adierazitako epea beteko balitz, Instruktoareak, hamar eguneko epean espedientea Diziplinazko Batzordera igoko du ebazteko, bere hasierako ebazpen proposamena mantenduz, ala bere kasuan, burututako alegazioen arabera modu motibatuan aldatuz.

3.- Ebazpena eman aurretik Diziplinazko Batzordeak bere une egokian interesdunek proposatu izango zituzkeen eta proposatzen zuenari egotzi ezinezko arrazoiren batengatik azkenean praktikatzera iritsiko ez ziratekeen proba-izapideen praktika agindu ahal izango du, hobeto hornitzeko asmoz eta ebazpena emateko terminoa atzeratuz.

Diziplinako Batzordeak emandako ebazpenak espedienteari amaiera emango dio.


III. Kapitulua: Ez ohiko Prozedurarena

29. Artikulua: 1.- Hipotesi haietan guztietan zeinetan kirol lehiaketa batengatik nahiz honen ondorioz arau-hauste bat gertatu izanagatik Diziplinazko Batzordearen esku hartzea eskatzen baita, eta bere garapen normala bermatzeko, Diziplinazko Batzordeak aldi berean interesdunen alegazioekin lotutako izapidea, hau ahozkoa izatea agindu ahal izanik, hala nola proba-praktiken izapidea burutu ahal izango ditu, zeinen artean garrantzi berezia izango baitute akta arbitralak ala arbitroaren nahiz federazio Ordezkararen txostenak; horrela, bere ebazpena lehiaketaren garapen ala jarraipen normalak eskatzen duen presaren arabera emango litzateke.

2.- Diziplinako Batzordeak halaber aldi baterako etenaldiak agindu ahal izango ditu, baita beharrezkoa litzatekeen beste edonolako kautelazko neurri ere.

3.- Beti babestuta geratuko da interesdunen aurretiazko entzutearen irizpidea, baita dagokien instantzien bidez hartutako hitzarmenen aurka hauen errekurritzeko eskubidea ere.

4.- Diziplinazko Batzordeak instruktorea izendatu ahal izango du ala ez, jardueren eta presaren arabera.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

30. Artikulua:

1.- Arbitro, epaile jaun/andre ala joko eta lehiaketa arauen kontrola Federazioa ordezkatzuz burutzen duten pertsonen hartutako erabakien aurkako erreklamazioak, arau-hausleak, ala bere klubeko ordezkariak dagokion gutuna jasoko lukeen unearekiko hurrengo berrogeita zortzi orduren barnean adierazi beharko dira. Alegazioen idatzian, edozein kasutan, praktikatzea nahi den froga proposatu beharko da.

2.- Diziplinazko Batzordeak aurka-egitea ala erreklamazioa bost egunen epean ebatziko du, zein aurreko epea amaitu zen unetik aurrera zenbatuko baita. Epe hori hedatu ahal izango da proposatutako eta onartutako froga, froga-proposamen hori jasotzen den datarekiko hurrengo bost egunen barnean praktikatu ahal ezin izaten denean. Edozein kasutan epeak ez ditu hamar egun gaindituko.

IV. Kapituluak: Jakinarazpenak eta Errekurtsoak

31. Artikulua:


1.- Diziplinazko kirol prozeduretan emandako erabaki eta ebazpenak motibatuak izateaz gainera interesdunei jakinarazi beharko zaizkie, kasu bakoitzean dagozkien erabaki ala hitzarmen eta erreklamazio nahiz errekurtsoen edukia adierazita, hartzen diren egunetik gehieneko hamar eguneko epean, ohiko prozeduraren kasuan, eta bost eguneko ez ohiko prozeduraren kasuan.

2.- Jakinarazpenak interesdunen helbidean ala gizarte egoitzan burutuko dira, gutun ziurtatu, telegrama ala interesdun horiek hartu dutenaren ziurtasuna bermatu ahal duen beste edonolako komunikabideren bidez.

Jokalari jaun/andre, teknikari jaun/andre ala ordezkari jaun/andreen kasuan, jakinarazpena dagozkien klubetan burutuko da, zeinek xede horietarako hauen ordezkariak izango baitira.

3.- Hitzarmen ala ebazpenaren garrantziak nahiz ondorioak gomendatzen duenean, eskumeneko Batzordeak halaber bere argitalpen, hedapen ala jendaurreko jakinarazpena agindu ahal izango du, betiere indarrean dagoen legeriari jarraiki pertsonen ohore eta intimitatea errespetatuz.

32. Artikulua: Euskadiko Rugby Federakuntzaren Apelazio Batzordeak emandako diziplinazko hitzarmen eta ebazpenek federazio bidea agortzen dute eta hauek Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

2.- Kirol Justiziaren Euskal Batzordeak emandako diziplinazko hitzarmen eta ebazpenek administrazio bidea agortzen dute, eta aplikagarriak diren eskumeneko araei dagokionez administrazioarekiko auzi-prozesuaren aurrean errekurtsua jarri ahal izango zaie.

33. Artikulua: Euskadiko Rugby Federakuntzak ezarritako zigorren liburu ala erregistro bat izango du eskuragarri, ezagutzeko, bere kasuan, ezarritako zigorraren berri, baita zein data duen; bere preskripzio garaiak; aldatzeko arrazoiaren aldiberekotasuna eta birgaitzeko eskubidearen jardura ere.

34. Artikulua:

Prozeduraren arloan aplikagarria izango da, izaera osagarriarekin, Euskal Herriko Kirolaren Legean eta kirol diziplina arautzen duten Arautegi publikotan xedatutakoa, eta bere kasuan, Euskadiko Rugby Federakuntzaren Estatutuetan nahiz administrazio prozedura komuna erregulatzen duten arauetan aurreikusitakoa.

AMAIERAKO XEDAPENA: Arautegi hau onartua izan ondoren eta Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu ondoren jarriko da indarrean.